


E MAILA**ZARAUTZ KALEKO BIZITEGI MULTZOA****Deskribapena**

Langile etxebizitzaren multzoa, 1890 eta 1956 artean eraikitakoa, Lizariturry y Rezola fabrikako enplegatuentzat. Multzo honek 12 zenbaki edo ezkaratz ditu, etxebizitza tipologia bera gauzatzen deneko eraikinei dagozkienak: errepide zaharrean zehar daude lerrokatuta, lerro hautsi bat eratuz. Eraikinak hurrenez hurreneko bost jarduketetan egin zituzten, eta horietan sartuta zeuden egun ez dauden 7, 9 eta 11 zenbakiak, baita 13, 15 eta 17 zenbakietako eraikinak ere (horiek ez dira multzoan sartu). Hiru, lau edo bost altuerako eraikinak dira, bi orientazioko etxebizitzak hartzen dituztenak, eta fatxadaren konposizio erregularra dute. Multzoaren soluzio gisa, nabarmentzekoa da bere altxaeraren perspektiba eta lerrokatadura kaleko trazara tolestea.

Zarautz kaleko etxebizitza multzoaren babes erregimena

D babes mailan sartuta dauden multzoaren eraikuntza batzuetarako ezarritako berariazko babes erregimena osatu egiten da jarraian azaltzen diren zehaztapenekin. Horiek Zarautz kaleko etxebizitza multzo osoari buruzkoak dira, eta haren funtsezko balioei eustea dute helburu. Zehazki:

- * Bizitegi eraikuntzak finkatzen dira, altuerari eta solairu kopuruari dagokienez egun dituzten baldintzetan. Ez dira jasodurak onartzen.
- * Multzoaren eraikuntza guztiek tratamendu bateratua izango dute, espazio publikotik hauteman daitezkeen esku-hartzei dagokienez; barne direla estalkietan eragina dutenak: koloreak, materialak, etab.

Multzo honetan, honako eraikin hauek biltzen dira:

- * Zarautz, 19
- * Zarautz, 21
- * Zarautz, 23
- * Zarautz, 25
- * Zarautz, 27
- * Zarautz, 29
- * Zarautz, 31
- * Zarautz, 33 (era berean, banaka, D mailan sartzen da).
- * Zarautz, 35 (era berean, banaka, D mailan sartzen da).
- * Zarautz, 37 (era berean, banaka, D mailan sartzen da).
- * Zarautz, 39 (era berean, banaka, D mailan sartzen da).
- * Zarautz, 41 (era berean, banaka, D mailan sartzen da).